

# LEZAMAko

## EMAKUME eta GIZONEN arteko III BERDINTASUN PLANA



Lezama ko Udala

**EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA-k**  
**diruz lagundutako proiektua:**



*equipare* *koop.elk.txikia*-k egindako Txostena:

**equipare**  
koop elk txikia

## EDUKINEN AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	3
2. GAUZATZE PROZESUA .....	4
3. UDAL PLANAREN EDUKIAK ETA EGITURA.....	6
4. UDAL PLANA GARATZEKO TESTUINGURUA, EGITURAK ETA PRINTZIOAK .....	7
5. EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO GOBERNAMENDUA .....	9
6. EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNAREN ARLOAK eta ESKU-HARTZE ARDATZAK.10	
1. ARDATZA BALIO ALDAKETA ETA EMAKUMEEN JABEKUNTZA.....	11
2. ARDATZA ERANTZUKIZUN PARTEKATURAKO GIZARTE ANTOLAKETA .....	12
3. ARDATZA EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA ERROTIK ATERATZEA.....	13
7. JARRAIPENA ETA EBALUAKETA .....	14
8 LEZAMAKO III BERDINTASUN PLANA .....	15

## 1. SARRERA

Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak eta horren kide diren udalerriek, azkeneko urteetan I. Berdintasun Plana bultzatu dute eta 2013. urtetik 2016. urtera indarraldia izan du. Lehenengo esperientzia Mankomunitatearen mailan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde planak, estrategiak eta ekintzak garatzeko orduan udalerrri desberdinen ibilbidearekin batera, oinarri modura erabili da II. Berdintasun Plana eta dagozkion Udalen Berdintasun Planak gauzatzeko partaidetza prozesuan, Lezamako III Berdintasun Plana barne.

Gaur arte egindako bidea 2008. urtean hasi zen, hain zuzen ere, Larrabetzuko Udalak berdintasunari buruzko plana onartu zuenean. Horrez gain, 2010. urtean gainerako udalerriek lehenengo berdintasun planak onartu zituzten. Beraz, berdintasuna bultzatzea Mankomunitateko erakundeetan konpromiso irmoa da, egiturazkoak direla kontuan hartuta, emakumeek jasaten dituzten desberdintasun eta diskriminaziozko azalpenak errotik ateratzeko, lan eraginkorra egin behar dela jakinda. Alde batetik, erakundearen barnean gauzatu behar da eta, bestetik, herritarrentzat ekintzak bultzatu behar dira, jakitun izateko, portaerak nahiz baloreak aldatzeko eta konpromiso aktiboa onartzeko.

Lezamako III Berdintasun Plana eratzeko prozesu parte-hartzailea bultzatzearekin, Mankomunitateko II Berdintasun Planarekin koordinazioan, eragile eta pertsona aipagarrien kopuru handiena nahastea bilatu da. Halaber emakumeen taldeak eta feministak egotea nahi izan da.

Ildo horri jarraiki, III. Planaren helburua berdintasun politikak bultza daitezen Udalerrian inplementatzen diren ekintzak eta neurriak planifikatu, jarraitu eta ebaluatzeko tresna izatea da, Mankomunitatearekin koordinazioan. Hala, Udalaren estrategia eta plan desberdinekin koordinatuta eta osatuta, eraginkortasunez eragingo dute emakume eta gizonen arteko egiazko berdintasunaren aldeko borrokan.

## 2. GAUZATZE PROZESUA

III. Berdintasun Plana 2017ko maiatzetik azarora bitartean egin da prozesu parte-hartzailearen bitartez. Abiapuntua II. Plana ezartzean egindako ibilbidea aldeztatik balioztatzea izan da eta, gainera, berdintasun politiken inguruan azkeneko urteetan estrategiak eta ekintzak bultzatu dituzten eragile aipagarrienekin alderatu da.

Aginpide, zerbitzu eta bultzatzen dituen programei dagokienez, Udalerriko errealitatera moldatzen den plana egitea bilatu da. Udalerriaren errealitateari doitu eta moldatutako plana egitearen ikuspegi bera sustatu da garatu Mankomuniteteko prozesuan. Bi estrategiak, Mankomunitatearen mailan eta Udal mailan, aldi berean eta modu koordinatuan gauzatu dira eta Mankomunitatea osatzen duten erakundearen egitura organikoa nahiz aginpideak kontuan hartuta, beharrezko eta ezinbesteko estrategia da.

Horretarako, etengabe eta modu koordinatuan lan egin da **Mankomunitateko Berdintasun Zerbitzuarekin**. Bertan teknikari bat dago 28 ordu astero. Izan ere, berak bideratu ditu proposamenak eta ekarpen guztiak. Horrez gain, plana egiteko Mankomunitatean eta udalerriaren egitura desberdinak antolatu dira.

Udal mailan **Udal Talde Bultzatzailea** eratu da berdintasunari buruzko udal politiketan gobernu taldeko arduradunen ordezkaritza izan da, Osoko Bilkurako talde politikoetako ordezkariekin batera eta Udaleko teknikariek ere parte hartu dutelarik.

Talde honen bitartez prozesu parte-hartzailea bermatzeko udaleko lan kronograma eta eman beharrezko urratsak adostu dira eta udal planean erantsi beharrezko ekarpenak nahiz proposamenak landu ere bai. Hilabete hauetan taldeak, Mankomunitateko Berdintasun teknikariarekin eta planak egitean prozesu parte-hartzailea bultzatzeko kontratatu den kanpoko zerbitzuarekin koordinatuta, aurrez aurreko bileratan proposamenak eta agiriak landu ditu eta e-postaz alderatu dira. Hausnarketa eta ekarpen gune irekia eta malgua izan da eta tokiko errealitatea nahiz Udalaren ezagututa adostasuna bilatuz egin du lana.

Era berean, **Lantegi Parte-hartzailea** garatu da eta tokiko talde eta erakundeentzat egituratu da. Oro har, herritarrak, udalerritik emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzeko hausnarketa edota ekarpenak egitean interesa azaldu dutenek parte hartu dute. Lantegian, hainbat dinamika parte-hartzaileez baliaturik, ekintza edota estrategia bezala planari erantzea garrantzitsutzat jotzen diren proposamenak eta neurriak sortzea bilatu da. Horretarako, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun/desberdintasun egoerari buruzko analisi berezia burutu da eta planak egiteko planteatutako jarduerak ardatzak kontuan hartu dira.

Lantegi Parte-hartzaileen ekarpenak eta analisiak Planaren Talde Bultzatzaileak aztertu eta balioetsi ditu.

Mankomunitatearen mailan lanerako guneak eta koordinazio nahiz kudeaketa egiturak izan dira. Bide horri eutsiz, II. Planean gauzatzeari, inplikazio mailari eta definizioari lotutako proposamenak aztertu, alderatu eta baliozkotu dira eta, xede horrez, kontuan hartu da, batetik, jardueraren eremua eta, bestetik, bertan definitzen diren ekintzen garapenarekin lotura. Ildo horri jarraiki, lan saio desberdinak antolatu dira honako eragileekin:

- Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuak eta erkidegoan nahiz hezkuntzan eta gizartearen Esku Hartzeko Taldea

- Mankomunitateko Ekonomia Sustapen Zerbitzua, EGAZ
- Txorierriko Udal Euskaltegia
- Mankomunitateko Kultura, Euskara, Erkidegoan Esku-hartze eta Berdintasuneko teknikarien lantaldea
- Mankomunitateko Gerentzia eta Burutza
- Mankomunitateko Gizarte Ongizatearen Batzordea

Horrek guztiek plana aberasten eta proposamen desberdinak tokiko errealitateari ahalik eta egokien doitzen lagundu dute. Bestalde, ezagutza eta ohartarazpena sustatu dute. Azkenik, jarraiean Lezamako III Berdintasun Plana deskribatzen diren neurriak eta estrategiak garatu eta bertan inplikatzeari buruz hitz egin da.

### 3. LEZAMAKO III. PLANAREN EGITURA

**Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea** EAEn berdintasunari buruzko politiken arloan erreferentziazko arau esparru nagusia da. Horretan gure ingurunean emakume eta gizonen arteko berdintasunaren eremuan aginte publikoen jarduera bideratu eta orientatzeko printzipio nagusiak zehazten dira. Ildo horri eutsiz, Tokiko Administrazioari . artikuluan legeak “(...) *Euskal Autonomia Erkidegoko udalei, banan-banan edo mankomunitateen bidez (...)*” atxikitzen dizkien aginpideak eta funtzioak definitzen ditu.

Berdintasun politiken plangintzari buruz, legeak II. tituluan, I. kapituluan, 15.3. artikuluan honakoa definitzen du: “(...) *Udalek berdintasunerako planak edo programak onartuko dituzte, Eusko Jaurlaritzaren plangintza orokorrean xedatutako esku-hartze lerroekin eta gidalerroekin bat, (...)*”. Gidalerro horiek, Txorierriko Mankomunitatearen eta bere udalerrri kideen Plana egitean, **IV. EAEko Gizonen eta Emakumeen Berdintasunerako Planean jasoak daude, Emakundek burutu ostean**. Beraz, agiri honek plan desberdinen helburuak eta jarduera ardatzak, baita irizpide eta eduki nagusiak ere bideratu eta egituratu ditu.

Hala, dokumentu honetan hurrengo edukiak aurkituko dira:

- Berdintasunaren inguruan jardutea planteatzen den errealitatearen analisia
- Helburu estrategiko eta operatiboak
- Ekintzak
- Ebaluazio adierazleak
- Ekintzak inplementatze arduratuko diren arloak eta eragileak
- Ekintzen egutegia
- Inplementatu, jarraitu eta ebaluatzeko koordinazio egiturak

Emakunderen VI. Planari dagozkion gidalerroen ildotik, planen (Mankomunitatearena eta Udalena) egitura orokorra 2 eremuk definitzen dute:

- 1) **Berdintasunaren aldeko gobernamentua** hobetzeko neurriek; horien artean berdintasuna barneko antolaketan eta Txorierrin administrazio desberdinen egiteko moduetan edota egituretan barneratzeko neurriak jasotzen dira.
- 2) **Berdintasunaren arloan Esku-hartze ardatzek**; ondorengo moduan definitu ostean, lehenetsuneko estrategiak eta ekintzak egituratu nahi dituzte, gero, planen esparruan garatzeko. Helburua errealitate, egoera, esperientzia, testuinguru eta abar anitzetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzea da. Aurrekoaren harira, hori sustatu, eskatu eta bermatu behar da.
  1. ardatza. Baloreen aldaketa eta emakumeen jabekuntza
  2. ardatza. Gizarte antolaketa erantzukizun partekatuarekin
  3. ardatza. Emakumeen aurkako indarkeria errotik ateratzea

## 4. LEZAMAKO III BERDINTASUN PLANA GARATZEKO TESTUINGURUA, EGITURAK ETA PRINTZIOAK

Lezamako III Plana, II. Txorierriko Mankomunitatearen Planarekin koordinazioan, 4 urteko indarraldia izango dute, 2018. urtetik 2021. urtera, alegia.

Planaren abian jartze eta garapenerako, **Mankomunitateko Berdintasun Zerbitzuak** etengabe koordinatzen dihardu. Ildo horri jarraiki, zerbitzu hori definitutako ekintza zati handia bultzatzez, sustatzez eta jarraitzez arduratzen da. Gainera, Udalen mailan egiturak garatuko dira planak zabaltzeari dagokion esparruan.

Mankomunitateak **Gizarte Ongizatearen Batzordea** du eta berdintasun politikei buruzko gaiak lantzen dira. Beraz, Osoko Bilkurarekin batera, zuzendaritza eta erabakitze gune bilakatuko da.

Era berean, lantalde egonkorra dago eta Mankomunitateko Euskara, Gizarte eta Erkidegoan Esku-hartze nahiz Berdintasun Zerbitzuetako teknikariek eta Udaletako Kultura Arloetako teknikari arduradunek osatzen dute.

**Udal mailan** udal egituran berez berdintasun arloarrik ez dago, gaur egun funtzio hori Mankomunitateko Berdintasun Zerbitzuari atxikitzen baitzaio. Hala eta guztiz ere, Lezamako Udalak **politikari arduradun** bat edo batzuk dituzte Berdintasun Politika jarraipena egiteko ardura. Era berean, plana garatu, jarraitu eta ebaluatzeko **lan eta koordinazio egitura** egonkorren **sorrera** sustatzea aurrez ikusten da.

Lezamako III. Berdintasun Planak, Txorierriko Mankomunitatearen Berdintasun Planarekin koordinazioan, azken helburu modura emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzea du eta, horretarako, hurrengo **printzipio gidariak** azpimarra daitezke. Izan ere, printzipio horiek plana egiteko bultzatu den prozesu parte-hartzailearen oinarrian egon dira:

### **Erakundeen arteko lankidetzeta eta koordinazioa**

Mankomunitatearen sorrerak eta egiturak berak, ez bakarrik berdintasun politikak sustatzeari dagokionean, printzipio horri erantzuten dio. Gainera, Lezamako III. Planaren garapenak eta alde zuzenetik ibilitakoak lankidetzan jarduteko beste erakunde batzuk identifikatzen ditu. Horri esker, EAEn gainerako politikekin bat datozen jarduerak eta neurriak inplementa daitezke.

Emakunde, Bizkaiko Foru Aldundia eta Eudel dira erreferentziako erakundeak Lezamako III. Plan Planean ageri diren jarduerak guztiak kokatzeko, beraz, aipatu erakundeek toki erakundeetarako bideratu eta abian jartzen dituzten lan prozesuak, baliabideak eta tresnak erabiliko dira.

### **Gizarte lankidetzeta eta partaidetzeta**

Erakundeen arteko lankidetzeta printzipiorako aipatu den bezala, burutze prozesua printzipio horretatik abiatuta bultzatu da, herritarrekin eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko orduan interesa zuten nahiz nahasiak zeuden bestelako taldeekin lan ikuspegi parte-hartzailea sendotu baita.

Dauden erakundeei buruz, Lezamako udalerrak printzipio hori gauzatzeko estrategia planteatuko du. Xede horrez, berdintasun kontseiluez edo gizarte partaidetzarekiko lan egitura malgu eta irekiez baliatuko da.

### **Aurrekontua**

2018rako 12.000 euroko aurrekontua dago

### **Ebaluazioa eta jarraipena**

Bai Mankomunitatean, bai Udalean oinarritzko estrategiak eta printzipioak dira. Lehentasuna eman zaio ekintzen plangintza zehatzari, egin daitekeenari, alegia. Horrez gain, bideragarritasuna eta egokitasuna aldizka aztertu eta ebaluatu ondoren, aldatu eta egokitzeko aukera izango da.



## 5. EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO GOBERNANTZA

Berdintasun planak garatzeko eremu bezala gobernamentua hobetzen duten neurriak sartzeak argi eta garbi uzten du erakundeek, entitateek, elkarteek... beren funtzioak gauzatzean, nagusiki, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzen eragiten dutela, beraz, kontuan hartu eta sustatu beharreko nahitaezko estrategia da. Halaber, generoaren ikuspegia edo generoaren mainstreaminga barneratzearekin zerikusia du. Nolanahi ere, hori nazioartean eta Europan gomendatu eta bultzatutako lan estrategia bat da eta emakumeen nahiz gizonen berdintasunaren arloan euskal erakundeen jardura arautu eta bideratu behar duen printzipio orokor bat ere bai, 4/2015 Legeak berak xedatzen duen bezala.

Mankomunitatearen eta udalerrri desberdinen Plana egiteko, VI. EAEN emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako Planak, hau da, agiri esparruak, jasotzen dituen neurriak aztertu dira:

- Berdintasunerako plangintza areagotu eta hobetzea.
- Berdintasunerako administrazio unitateak sortu eta sendotzea.
- Berdintasunerako koordinazio egiturak sortu eta indartzea.
- Estatistika eta azterlanetan generoaren ikuspegia barneratzea.
- Prestakuntza jardueratan generoaren ikuspegia eranstea.
- Enplegu publikoaren hautespen eta sustapen prozesuetan berdintasunari buruzko edukiak sartzea.
- Mintzaira edota bestelako komunikazio elementuak modu ez-sexistan erabiltzea.
- Araudian berdintasunaren printzipioa sartzea.
- Aurrekontuetan generoaren ikuspegia eranstea.
- Sektore planetan eta zeharkakoetan generoaren ikuspegia sartzea.
- Kontratu, diru-laguntza eta hitzarmenetan berdintasunerako klausulak sartzea.
- Epaimahaietan emakume eta gizonen ordezkartza orekatua sustatzea.
- Kontsulta eta partaidetza organoetan generoaren ikuspegia sartzea.

Analisi honetatik abiatuta, bai Mankomunitateak, bai kide diren Udalek, beren egungo egoera eta ibilbidean, egiturak eta giza baliabideetan nahiz bitarteko materialetan errealitate desberdina kontuan hartuta eta egindako berdintasun planak garatzeko eremu honen garrantziaz jakitun izanik, ekintzak definitu eta egutegi batean jarri dituzte. Horiek helburu estrategiko eta operatiboetan kokatzen dira eta jarraipen nahiz ebaluazio adierazleak dituzte.

Hala, ekintzak abian jartzeko konpromisoa onartzen da. Helburua administrazioen egiteko eta kudeatzeko moduak nahiz egiturak eraldatzea da, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzeko funtsezko estrategia bezala.

## 6. EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNAREN ARLOAN ESKU HARTZEKO ARDATZAK

Plan desberdinetan deskribatzen diren esku hartzeko ardatzei dagokienez, bai Mankomunitatean, baita udalerrri desberdinetan ere, VI. EAEko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Planak xedatzen dituen esku-hartze ardatzak kontuan hartu dira, baina alde zuzenetik Zerbitzuen Mankomunitatea eta Udala osatzen duten erakundeen aginpide eta jarduera errealitate eta mailari moldatu zaizkio.

Hala, III Planean garatu diren esku-hartze ardatzek honako ARDATZ/PROGRAMA/HELBURU ESTRATEGIKORI erantzuten dizkiete:

1. PROGRAMA: OHARTAZPENA ETA JABEKUNTZA PERTSONALA

**HELBURU ESTRATEGIKOA:** osasun, gorputz eta sexualitatearekiko emakumeen ohartarazpena eta jabeakuntza sustatzea.

**HELBURU ESTRATEGIKOA:** kirol jardunean generoaren estereotipo tradizionalak deuseztatzen laguntzea.

**HELBURU ESTRATEGIKOA:** espazio publikoetatik emakumeen irisgarritasuna eta mugikortasuna bultzatzea.

2. PROGRAMA: AUTONOMIA EKONOMIKOA ETA BALIABIDEAK LORTZEA

**HELBURU ESTRATEGIKOA:** enplegua lortzea eta baldintzak hobetzea, baita emakumeen sustapen profesionala ongira egitea ere.

**HELBURU ESTRATEGIKOA:** egoera ahulean ala ezegonkorrean dauden edota diskriminazio asko jasaten dituzten emakumeen jabeakuntza bultzatzea.

3. PROGRAMA: EMAKUMEEN GIZARTE PARTAIDETZA ETA TALDEKO JABEKUNTZA BULTZATZEA

**HELBURU ESTRATEGIKOA:** elkartearen sarean emakumeen jabeakuntza eta kontzientzia feminista sustatzea.

**HELBURU ESTRATEGIKOA:** emakumeen gizarte partaidetza eta adin, jatorri eta gaitasunei dagokienez aniztasunaren ordezkariak bultzatzea.

4. PROGRAMA: UGALTZE ETA ZAINZTA ZEREGINAK ONARTZEA ETA ERANTZUKIZUN PARTEKATUA BATERATZEN LAGUNTZEA

**HELBURU ESTRATEGIKOA:** erantzukizun partekatuko eta estereotipo sexistarik gabeko gizarte antolaketa bultzatzen duten politika publikoak sustatzea.

5. PROGRAMA: SENTSIBILIZAZIOA ETA PREBENTZIOA

**HELBURU ESTRATEGIKOA:** indarkeria matxistaren aurka udalerriko biztanleak ohartaraztea eta konpromiso aktiboa har dezaten sustatzea.

**HELBURU ESTRATEGIKOA:** indarkeriarik gabeko eta sexu aniztasunaren errespetua duten MKa eta Udalerriak bultzatzea.

6. PROGRAMA: ARRETA

**HELBURU ESTRATEGIKOA:** ikuspegi osotik indarkeria matxistaren arloan arreta hobetzea.

**HELBURU ESTRATEGIKOA:** emakumeentzat espazio publiko segurua sustatzea.

## 6.1. ARDATZA. EMAKUMEEN JABEKUNTZA

Oinarri horretatik ulertutako jabekuntzak, batetik, banako ikuspegi edota pertsonala eta, bestetik, taldeko ikuspuntua du. Banako jabekuntzaren ondorioz, norbera autonomiarako bere egoeraz, baliabideak lortu edota hobetzeaz eta gaitasunez jakitun da. Modu berean, pertsona mailan ekintza eta eragin gaitasuna areagotzen da. Taldeko jabekuntzak eragin eta mugiarazte gaitasuna gehitzea du helburu, desberdintasuna sortu eta mantentzen duten egiturak eraldatzeko xede argiz.

Banako eta taldeko jabekuntzaren ikuspegi osotik III. Planerako ekintzak definitu dira eta, gainera, horretarako, gizartean orokorrean baloreak aldatu behar direla aitortu da. Hala, erakundeek bultzatutako berdintasun politikek eremu eta errealitate estrategikoak kontuan hartuta beren esku-hartzeetan baloreen aldaketa sustatu behar dute, berdintasuna lortzeko.

Ondoren, III. Planari buruzko plangintza ageri da. Aurrekoaren harira, baloreen aldaketa eta emakumeen jabekuntza sustatzeko helburu estrategikoak, operatiboak eta ekintzak lantzen dira, bere esku-hartze eremuari moldatu ostean, tokiko jarduera esparrua eta aginpideak kontuan hartuta.

## 6.2. ARDATZA. ERANTZUKIZUN PARTEKATURAKO GIZARTE ANTOLAKETA

Erantzukizun partekatuaren ondorioz, etxeko zereginak eta zaintzak norberaren eta gainerako pertsonen bizia mantentzeko prozesuaren barnean daude eta, horregatik, erantzukizun ordezkazina eta saihestezina denez, bidezko banaketa, emakumeen eta gizonen arteko baldintza berdinetan, egin behar da.

Egiazko berdintasuna lortzeko eremu eta ikuspegi nagusia da. Hala ere, historikoki eta, besteak beste, lanaren sexu banaketa dela bide, etxeko zereginak eta zaintzak pribatuaren, ikusezinaren, zenbatu gabearen... eremura mugatu dira eta gehien bat emakumeek jardun dute.

Biziaren eta pertsonen eremuko eraikuntza dikotomikoak (produkzioa/ugalketa, publiko/pribatua, izen handia/balio gutxikoa...), batzuetan generoaren gizarteratze tradizionalak natural bihurtutakoak, gizartearen funtzionamendua egituratzen jarraitzen du eta ezinezkoa da emakume eta gizonen arteko egiazko berdintasun eraginkorra lortzea. Ildo horri jarraiki, zaintza lanak eta etxeko zereginak ez dira behar bezala balioztatzen eta egiten dituztenak, bai norbera edota familia mantentzeko, bai modu ordainduan, oraindik baldintza pertsonal eta, askotan, material okerragoetan (denbora, dirua, osasuna...) daude erabateko autonomia lortu eta beren bizi proiektuak garatzeko orduan.

Erantzukizun partekatua bateratzetik urrunago doa, emakume eta gizonen arteko berdintasunik ezaren eta desberdintasunaren oinarrian dauden gizarte eta kultur egiturak eraldatzea baitu helburu.

Horregatik guztiarengatik, ekintza eta eragin eremu estrategikoa da, nahiz eta horren gainean jarduteko egitura eta gizarte zailtasunak izan. Dena den, zailtasun hori III. Plana diseinatzean islatua gelditu da, ardatz horretan ekintza kopuru txikiena identifikatu eta planifikatu baita.

### 6.3. ARDATZA. INDARKERIA MATXISTA ERROTIK ATERATZEA

Emakumeen indarkeriak dramatikoki islatzen du emakume eta gizonen arteko harremanetan aginte desberdintasunaren eta asimetriaren egoera. Gizarte eta kultur egiturak ditu oinarri eta generoaren gizarteratze tradizionalaren bitartez eta gizartean dauden balore nahiz jardun matxistez baliaturik, oraindik errealitatea da, berdintasunaren alde, arautegian eta gizartean, banaka eta taldean, aurrerapausoak eman arren.

Adin, egoera sozio-ekonomiko, kultura, ogibide, kultur maila... guztietako emakumeetan azaltzen da.

Indarkeria matxista emakumeen giza eskubideak urratzen dituen adierazpenik larriena da, beraz, errotik ateratzeko borrorak oinarritzko jarduera izan behar du berdintasun politiketan eta, oro har, politika publikoetan.

Adierazpen anitzetan indarkeria matxista errotik ateratzeko begirada osoa eta diziplina askokoa behar da, bertan diharduenarekiko arbuio irmoaren konpromisoa hartzeaz gain. Gainera, bizi duenarekiko eta aurre egiten dionarekiko elkartasuna, laguntza eta onarpena sustatu behar dira.

Politika publikoek eta berdintasun politikek, administrazio desberdinen jarduera mailetatik, batetik, bitartekoak eta baliabideak jartzen saiatu behar dute eta, bestetik, indarkeria matxistarik gabeko biziak bermatzeko baldintzak ezarri behar dituzte.

Gaur egun Txorierriko Mankomunitateak Gizarte Zerbitzuen bitartez arretarako aginpideak ditu, beraz, III. plan honetan esku-hartzea zabaldu eta moldatzeko neurriak aurki daitezke. Bestalde, Lezamako Udalak prebentzioaren eta sentsibilizazioaren eremuetan jarduera gaitasuna du eta planean zehazten da. Bere helburua herritarrengan eta udalerrian eragitea da. Xede horrez, indarkeria sexista arbuiatu eta ingurune askeak bultza daitezen, banako eta taldeko jarduerak indartzeko ohartarazpenak eta gizarte antolaketa egituratzen dira.

## 7. JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Lezamako III. Berdintasun Planak etengabeko jarraipen eta ebaluazioaren **printzipioa eta estrategia** aurrez ikusten du eta modu horretan jasotzen da planaren gobernamentuari dagokion eremuan.

Horretarako, plana bera abian jartzen denean, jarraipen tresna egingo da, **Mankomunitateko Berdintasun Zerbitzuak**, jarraipen eta ebaluazioaren arduradunak, planean deskribatzen diren ekintzak eta neurriak jarrai ditzan eta **koordinazio eta erabakitze egituretarako** informazioa jaso dezan, bai Mankomunitatean, bai udalerrietan. Helburua aztertu, balioetsi eta, bidezkoa bada, egokitzea da.

Urtero koordinazio egiturek azterketa egingo dute, egutegian ezarritako plangintzaren arabera. Izan ere, hori planean deskribatuta dago. Urteko ebaluazioaz gain, Berdintasun Zerbitzuak etengabeko jarraipena gauzatuko du eta, horri esker, plana behar bezala garatzeko aldaketak eta moldapenak egingo dira. Urteko ebaluazioaren arabera, hurrengo urteko plangintza burutuko da.

Jarraitu eta ebaluatzeko metodologia kualitatiboa eta kuantitatiboa da. Kuantitatiboa adierazleen analisisan oinarritzen da, bien bitartean, kualitatiboak hausnarketa eta balioztapen parte-hartzailean du bere oinarria. Azkenekoan, honakoak lantzen dira: ekintzek helburuak lortzen lagundu al duten, zer faktorek eragin duten positiboki edo negatiboki horiek garatzeko orduan, aldaketarik edo egokitzapenik behar al den...

Urteko ebaluazioaren arabera, hurrengo urterako plangintza egiten da.

Planaren indarraldia amaitzen denean, orokorrean helburuak lortu al diren eta horien eragina ebaluatzeko aukera balioetsiko da.

1. HELBURU ESTRATEGIKOA. Berdintasun-Politiken planifikazioaren, jarraipenaren eta ebaluaketaren indartzea eta hobetzea

Helburu operatiboak	Ekintzak	Adierazleak	Arduradunak	Egutegia			
				2018	2019	2020	2021
1.1. Helburu operatiboa. III. Berdintasun Plana Udalean aditzera ematea.	1.1.1. III Plana zabaltzea Udaleko teknikari eta politikarien artean	Plana ezagutzen duten Udal langile eta politikari kopurua III Planari buruz MKko berdintasun zerbitzura informazioa eskatzen duten langile eta politikari kopurua	Berdintasuna MK Udala	✓			
	1.1.2 Teknikari eta langileen artean informazio/aurkezpen saio bat burutu Udalean		Berdintasuna MK Udala	✓			
	1.1.3. Eskatzen duten arlo eta pertsonen III. Planari buruzko informazioa eta aholkularitza eskaintzea		Berdintasuna MK Udala	✓	✓	✓	✓
1.2. Helburu operatiboa. III Berdintasun Planaren jarraipena eta ebaluaketa egitea	1.2.1 III. Planaren jarraipen eta ebaluatzeko tresna diseinatzea.	Urteko jarraipena, ebaluaketa eta planifikaziorako egindako bilera kopurua Bilera bakoitzeko partaide kopurua, sexuaren arabera Urteko jarraipen txosten kopurua III Planaren azken ebaluaketa txostena Udal Plenoan egindako aurkezpen kopurua Birmoldatutako ekintza kopurua Urteko jarraipen eta ebaluaketa txostena eta azken ebaluaketa txostena ezagutzen duten langile eta politikaria kopurua	Berdintasuna MK	✓			
	1.2.2. Urtero txostena egitea, Planaren ekintzen lorpenak zehazteko eta hurrengo ekintzak programatzeko. Udal lan talde/berdintasun batzordeari eta Osoko Bilkurari aurkeztuko zaiona		Berdintasuna MK Udala	✓	✓	✓	✓
	1.2.3. III. Planaren indarraldia amaitutakoan, azkeneko ebaluazio txostena burutzea, udal lan talde/berdintasun batzordeari eta Udal Plenoari aurkeztuko zaiona		Berdintasuna MK				✓
	1.2.4. Herriko emakume elkarte eta elkarte feministen parte hartzea sustatzea III Planaren jarraipen, planifikazio eta ebaluaketan		Berdintasuna MK Udala	✓	✓	✓	✓
1.3. Helburu operatiboa. III. Berdintasun Plana herritarrei aditzera ematea	1.3.1. III. Berdintasun Planaren dibulgazio-agiria egitea.	Dibulgazio dokumentua	Berdintasuna MK	✓			
	1.3.2. Elkarte eta erakundeei III Plana ezagutzera emateko jarduera antolatzea	Jardueran parte hartu duten elkarte eta erakunde kopurua Parte hartu duten pertsona kopurua	Berdintasuna MK Udala	✓			
	1.3.3. Udal difusio euskarrien bitartez (aldizkaria, web orria) III Berdintasun Planaren dibulgazioa agiria zabaltzea	Planaren difusiorako egindako komunikazio neurri kopurua	Berdintasuna MK Udala	✓			
1.4. Helburu operatiboa. Udal Berdintasun Politiken jarraipen eta ebaluaketarako berdintasun koordinazio/lan talde/batzordea abian jarri	1.4.1. Berdintasun Politiken koordinaziorako lan talde/egitura osatzeko ordezkarien izendatzea	Berdintasunaren taldea osatzen duen pertsonen kopurua Izandako bilera kopurua. Bilera bakoitzean partaideen kopurua	Berdintasuna MK Berdintasun Planaren Talde Sustatzailea	✓			
	1.4.2. Talde honek garatuko dituen funtzioak zehaztea eta bileren kopurua, baita horien aldizkakotasuna ere definitzea.		Berdintasuna MK Berdintasun Planaren Talde Sustatzailea	✓			
	1.4.3. Talde hau osatzen duten pertsonen parte hartzeko baliabideak bermatzea.		Berdintasuna MK Berdintasun Planaren Talde Sustatzailea	✓	✓	✓	✓

1.5. Helburu operatiboa Berdintasun politiken garapenerako erakundeen arteko koordinazioaren indartzea	1.5.1. Eudel-eko udalerrietako berdintasun sarean –Berdinsarean – parte hartzea	Parte hartutako bilera kopurua Parte hartutako ekintza kopurua	Berdintasuna MK	✓	✓	✓	✓
	1.5.2. 5000 biztanle baino gutxiago udalerrietako Bizkaiko Aldundiko zerbitzuarekin, Berdinbidearekin, etengabeko koordinazioa mantentzea	Koordinazioan bultzatzen diren ekintza kopurua		✓	✓	✓	✓

## 2. HELBURU ESTRATEGIKOA. Udal jardueran genero ikuspegia txertatzea

Helburu operatiboak	Ekintzak	Adierazleak	Arduradunak	Egutegia			
				2018	2019	2020	2021
2.1. Helburu operatiboa. Udalak egiten dituen kontratuaren berdintasunaren irizpideak edota klausulak sartzea.	2.1.1. Kontratazioaren agiri guztietan nahitaez erantsi beharreko berdintasun- klausulak jasoaz arau-dokumentua gauzatzea. Ezinbestez hurrengoak izango ditu: mintzaira ez-sexista erabiltzea, datuak bereiziak jasotzea, berdintasunari buruzko	Berdintasun klausulak sartu dituen kontratuen kopurua. Sartu den klausulen kopurua eta mota. MKko berdintasun zerbitzutik arreta eskaini den kontsulten kopurua.	Berdintasuna MK Idazkaritza Udala	✓			
	2.1.2. Kontratu mota desberdinetarako klausulak, kontratazio bakoitzari molda dakizkiokeenak eta azter daitezkeenak, zehaztea.			✓	✓	✓	✓
	2.1.3. Kontratazioak izapidetzean berdintasun klausulak sartzeko sail desberdinei aholkatzea.				✓	✓	✓
2.2. Helburu operatiboa. Udal arautegian generoaren ikuspegia sartzea.	2.2.1. Tokiko arautegia aztertu eta ezagutu	Aztertutako arau kopurua Egokitutako neurri kopurua Burututako formazio kopurua Parte hartzaile kopurua formazioetan	Berdintasuna MK	✓			
	2.2.2. Genero perspektibatik abiatuta dagokion moldaketak sartu		Berdintasun MK Idazkaritza		✓	✓	✓
	2.2.3. Udal teknikariak beren sailetara egokituta genero perspektiba txertatzeko , prestatzea eta sentsibilizatzea.		Berdintasuna MK		✓	✓	✓
2.3. Helburu operatiboa Udal organoetan emakumeen eta gizonen arteko konposizio orekatua sustatzea.	2.3.1. Batzordeen konposizioan, izendapen libreko karguetan, hautespen epaimahai eta auzitegien konposizioan, kontseiluetan, partaidetza organoetan eta gainerako administrazio-organoetan emakumeen eta gizonen arteko ordezkaritza orekatua sustatzen duten irizpideak kontuan hartzea.	Ordezkaritza gun e eta taldeetan parte hartze orekatua bermatzeko jasotako irizpideak Ordezkaritza orekatua duten Udal ekintzek eta ekitaldiek	Udala	✓	✓	✓	✓
	2.3.2. Erakundeak ordezkariak duen ekitaldi guztietan, bereziki, tradizioz gizonak nagusi diren horietan emakumeen presentzia sustatzea eta alderantziz egitea usadioz emakumeak nagusi diren ekitaldietan (sariak emateko ekitaldiak, komunikabideen aurrean agerraldiak, etab.)			✓	✓	✓	✓



2.4. Helburu operatiboa Udalak egindako edo/eta sustatuko inprimaki, estatistika, azterlan eta txostenetan generoikuspegia sartzea.	2.4.1. Estatistikak, galdeketak eta datuak biltzen direnean sistematikoki sexuaren aldagaia sartzea.	Sexuaren aldagaia integratzeko aldatu diren inprimaki eta aplikazio kopurua	Berdintasun MK Udala		✓	✓	✓
